

6 Buruntzazpiko txirrindulariek lasterketa txukuna egin dute Usurbilen, etxekoan aurrean



Dantza garaikidea Manuel Lekuonan. - NAN ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek larunbat arratsaldean. Asier Zabaletaren zuzendaritzapean dantza garaikidea, zuzeneko musika, testu idatzia eta ikus-entzunezko materiala uzartzen zituen obra interpretatu zuen Erza dantza antzerki taldeak. Nola-baitek bidaia izan zen, bai kanpo mundura zuten barrua. Nazionalitateetik hasi eta norberaren nortasunaren mugak deskubritu nahi izan zituzten bidaia horretan. Ikusleak etengabe hausnartzera gonbidatu zituzten hasieratik amaieraraino. Koloreari dagokionez beltza eta zuria nagusitasuna nabarmendu zen oholiza gainean beste edozeren gainetik. Eskenografia ere soilta izan zen, gorpuzt hizkuntza erabili baitzuten batik-bat. Zuzeneko musikak ere presentzia handia izan zuen Iñar Sastre piano-jolearen doinuek girotu baituzten lana. Guztira 60 bat ikusle bildu ziren Manuel Lekuonako areto nagusian. Eusko Jaurfilatzak sustatutako Dantzan egitasmoaren barneko emanaldia izan zen larunbatekoa, baina ez da azkena izan. Udalak jakinarazi duenez, datozen hilabeteetan beste bi obra ikusteko aukera izango da. Kukai konpainiaren "Gelajazuziak" uztailaren 11n Okendon eta Daniel Abreu Tenerifeko koreografoaren eskutik "Silencio" dantza ikuskizuna urriaren 25ean kultur-etxean.

3 KULTURA

Ahots gazteak ostiralean Musika Topaketan

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketen barruan, Orereta Abesbatzak eskainiko du kontzertua ostiralean, Ama Brigitarren komentuan. Andra Mari abesbatzaren harrobiko taldeak abesti erlijioso eta polifonikoak nahastuko dituen egitaraua eskainiko du Lasarte-Orian.

3 GIZARTEA

Xirimiri elkarteak libre uzteko eskaera

35/02 sumarioa edo herriko tabernen epaiketa amaitu zen asteazkenean Auzitegi Nazionalen. Epaituetako elkarteetako bat Lasarte-Oriako Xirimiri elkarte da. Asteazkenean bertan elkarretaraztea egin zen Okendo plazan, honetan auziperatu guztiak absolbitzea eta prozesu judiziala bertan behera uztea eskatu zuten.



4-5 EUSKARA

Udaletxean egin ezazu lehen hitza euskaraz

Lasarte-Oriako Udalak Udaletxe barruan zein kanpora begira euskararen sustapena lantzeko "Euskararen Bidegorria" ekimena jarri zuen martxan. Lehenik udaletxe barruko harremanetan egin zen lan; orain Udalak herritarrek lehen eta bigarren hitza euskaraz egitera gonbidatu nahi ditu.

EUROMIKEL S. L.

N-1 Ctra 443 km, 34 Polg.
20150 Villabona
Tel.: 943 360450
943 365403
boxes@euromikels.com
www.euromikels.com

Auto Mekanika BOXES

943 380850

Ustere KOTXEA, MOTO eta FURGONETAKO
ERREBESKOA egiten eta OLJOA aldatzen,
zorgatiki hainbeste ordaindu 7

Hiru aukera dituzu :
zuk egiten duzu
zuk gurelari ikasiz
guk egiten dugu

**DEITU ETA ESKATU PREZIOAK
KONPROMEZURIK GABE**

Adituak dio



Niko Urrutia
Udaleko Langilea

Lehendabiziko hitza euskaraz

Edozein lehiatelan lan egiten dugunok, ederki dakigu gure laneko atal nagusietako bat "pioniso" edo asmatzailearena egitea dugula. Gure gizarteak bultzatutako itxura fisikoan oinarrituta, hor dihardugu aurrean daukagun bitanle hori euskalduna den edo ez asmatu nahian; "Egun on, zer nahi duzu?" edo "Buenos días, ¿Que quería?" entzuten duenean ulertu eta gaizki hartu ez dezan. Gainera, kaletar askok administrazioarekiko ikuspegi eraldaldua du; eskaera gehienak gaztelania hutsean jasotzen dira eta sarritan elkarrizketak euskaraz hasi arren erdaraz amaitzen dira.

Hori guztia kontuan izanda, Lasarte-Oriako Udalak abian jarri du "Euskararen Bidegorria", euskararen erabilera zabaltzeko asmoz sortutako proiektua: udal-langileontzat hizkuntza lehenetsia bihurtu erabilera areagotzea lortu nahi da.

Hori erdietsita, herritarrek administrazioarekiko duten ikuspuntu eraldaldua aldatzeko ahalegina egin behar da; udaletxean sartu orduko, bitanleek eremu euskalduna nabaritu behar dute. Begi bistan dauzkagun kartel eta irudiak euskaraz agertzeak eragina badu baina, nire ustez, askoz ere eraginkorragoa da lehendabiziko hitza euskaraz entzutea. Jendaurrean lan egiten dugunok oso argi daukagu lehenengo hitza euskaraz egiten badugu, aurrean dugunari "euskararen atea" zabaltzen diogu-lana eta haren esku geratuko dela euskaraz jarraitzea. Edonork eman dezakegu urrats txiki zein aberasgarri hori, bai udal-langileok bai herritarrek, eta itxuraz pauso txikia izan arren euskararen aldeko urrats garantzitsuak da. Beraz, ez ahaztu: "Lehendabiziko hitza euskaraz!".

Lehenengo hitzaren garrantzia

Euskaldunok gero eta gehiago dira Lasarte-Orian. Hala diote behintzat azken azterketek. Batez ere belauandik berrietan ari da aldaketa gertatzen baina kalean entzuten al da euskaraz? Esparru guztietan erabiltzen al dugu euskaldunok?

Egia da duela 20 urte baino presentzia gehiago duela hizkuntzak herrian baina oraindik egiten den euskararen erabilera ez doa bat datuek adierazten duten hiztun goierrarekin.

Oraindik badirudi konplexuak gutzitx uxatu ez eta euskaldun zahar zein berriek ez dutela ohitura erakundeetara edota zerbitzu publikoetara jotzean euskaraz egiteko. Uste okerra da langileek ez dutela zertan euskaraz jakin behar; eta erosotasunetik edota erididikuluan ez geratzeagatik, gaztelera

erabiltzen da.

Bestealde, urteetan gaztelaz ar lan egitera ohituta ere, batez ere agiri ofizialetan dagokionez, udaletxeko langileak nahiz eta euskaldunok izan, gaztelera erabili izan dute eguneroko lanetan eta hain zuzen joera, ohitura, horiek aldatzeko marxan jarri du udaleko euskaraz zerbitzuak "Euskararen Bidegorria". Laneketa honekin udalaren baitan hainbat hizkuntza ohitura aldatzeko lanean jarri da eta honek herritarrengan badu eragina.

Langileek euskaraz egingo dute lehenengo hitza eta herritarrek erabakiko du horrela jarraitu edo ez. Hasierako zalantza horiek kenduta erakundeekin harremanetan ere, euskaraz herritarren lehenengo hautua izan dadila nahi du Udalak.

Hitz eta pitz

Zein hizkuntza erabiltzen duzu Udalarekiko harremanetan?



Mikel Arruti

Ez dut inolako arazorik Udalarekiko zerbitzuetan euskaraz erabiltzeko. Nik uste Udaletik saiakera egiten dela euskaraz bultzatu eta indartzeko. Beste gauza bat da emaitzak lortzea, baino lehen pauso bezala ongi inuitzen zait erantzunak ematea. Nik behintzat ez dut inolako arazorik euskaraz erabiltzeko Udalarekiko ezaintzen dituen zerbitzuetan.



Jose Ramon Mendizabal

Pertsonaren arabera. Segun eta zeinekin ohitura gehiago dut euskaraz edo erdaraz egiteko. Ni egia esan Udalak ezaintzen dituen zerbitzuetan artean kiroledgian ibiltzen naiz gehienbat eta ez dut arazorik euskaraz erabiltzeko. Uste dut Udala saiatzen dela euskararen aldeko mezuaz zabaltzen eta indartzten, baina argi dago ez dela hori beti lortzen.



Pello Esnal

Gaur egun ez dago inolako arazorik Udalarekiko zerbitzuetan euskaraz egiteko. Gari batean bai, arazo oso izaten ziren. Orain jendea ikastoletan ibilia dened, gazteek ez dute arazorik euskaraz harremanetarako eta nik euskaraz erabiltzen dut. Udala bide onean doala uste dut, aldaketa handia izan da eta gaur egun ia edozeinek in egin daiteke euskaraz.



Maialen Cuervo

Ni batik batik kiroledgian eta liburutegian ibiltzen naiz eta esan dezaket ez dudala inolako arazorik euskaraz harremanetarako. Beti egin dezake gehiago Udalak, baina nik uste arazoa alderantziz ere bada, Udalak euskaraz eskaini bai, baina lehenengo hitza herritarrek lotsagatik edo errespetuagatik gaztelaniaz egitea. Baina erantzutako egon badaude, egia da.

Iruditzen



2005ean aurkeztu zuten enpresak euskalduntzeko egitasmoa, argazkian Manifer Gorostiza euskaraz teknikaria eta Juan Mari Iradi orduko euskaraz burua.

Euskararen sustapenerako kanpainak

Udalako euskaraz zerbitzuak ahalagin eta kanpaina ezberdinak jarri ditu martxan herriko esparru desberdinak euskalduntzeko asmoz, zehazki 2005ean kontatzen zuten bezala, 14 esparru ziren zehaztutakoak. Bidean Titkun bezalako eragileak izan ditu epe luzerako egitasmoak aurrera eramateko. Orain, udaletxe barruan zein kanpora begirako "Euskararen Bidegorria" aurkezten dute, baina urteak dira kanpaina ezberdinak egiten direla gurean. Adibide horietako bat da herriko enpresa txikiak euskalduntzeko 2005ean aurkeztutako "Euskararekin zue irabazte". Honen helburua "herriko enpresen kalitate hobetzea, bezeroa gustura egotzea eta legea errespetatzea zen". Enpresetan euskaraz normalizatzeko ordua dela esaten zuten aurkezpenean, baita merkataritzan eta ostalaritzan alorrean egindako ahaleginaz haratago joatearen beharra ere. Egun oraindik laneketa honetan jarraitzen du udalak besteak beste, baina herritara eta udalaren arteko harremana euskaraz izan dadila da orain helburua.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFko Kultura eta Euskarazko Departamentua

Argitaratzailea:

Tiatkun Kultur Elkarte

Celtiko kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legezko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txinbarri

Eredaldioa:

Nerea Ezpigne, Maider

Azumendi, Jon Altona E.

txinbarri@txinbarri.info

Publikizatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publikizatea@titakun.com

administrazioa@titakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Maialen Arri, Asier

Odriozola, Jose M. Hernandez,

Oihana Salazar, Pako Aizpirtate,

Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amador

POLITIKA

Xirimiriren aldeko ekimena

Herriko tabernen epaiketa bukatuta, erabakiaren zain dago



Okendo plazan egin zen asteazkenean elkarretaratzeta.

Asteazkenean amaitu zen 35/02 sumarioa edo herriko tabernen epaiketa Auzitegi Nazionalan. Madrilen 32 pertsona, taberna eta elkarte izan dira epaituak ETaren finantzaketa sistemako zati zirela egotzita. Horien artean, Lasarte-Oriako Xirimiri elkarte dago.

TXINTXARRI

Epaiketaren amaierarekin bat eginaz, asteazkenean beste hainbat herritan bezala, Okendo plazan "Epaiketa politikorik ez! Xirimiri libre" lelopean elkarretaratzeta egin zen. Hainbat izan ziren herriko elkarteak elkartasuna erakustera hurbildu ziren herritarrak. Elkarteko ordezkariak honakoa adierazi zuten:

"Zubiak eraiki nahi ditugu lehen harrisekiz zeuden tokian. Gurea, bando herritarra izan da. 2 urteko prozesu demokratikoaren ostean, subjektu berri bat sortu da, "GU" berri bat; gu, bakean eta justizian oinarrituko den etorki-

zun berri baten alde egiten dugunak, konfrontazioa eremu politikora mugatuz den etorkizunaren jabe izan nahi dugunak; denok irabazle izango garen etorkizuna. Atzera begirako estrategia "antiterrorista"ri lotzea, herri honen etorkizunaren eraikuntzarako zama latza da. Lekez kanpo daude konponbidea eten edo oztopatu asmoz erailtzen dituzten harrisi berriak, eta epaiketa hau, horietako bat da; garaiz eta lekez kanpo dagoa.

Badau arrazoibide eta tresna juridiko mahikoa epaiketa honen emaitza bakearen aldekoa izan dadin. Gure aurkako epaiketan, berez

delitu ez diren ekimenak aurkeztu ditu akusazioak frogagisa, eta hala aitoritu du gainera. Jardun politikoa epaitzen aritu dira. Gureko testuingurua, politikak eremu polizial eta judizialek irten behar du. Horregatik, auziperatu guztiak absolbitzea eta prozesu judiziala bertan behera uztea eskatzen dugu. Herrikoak eta auziperatuak libre nahi ditugu! Epaiketa politikorik ez, Xirimiri libre!"

Absoluzio eskaera

Bost hilabetetako epaiketaren ostean, defentsak absoluzioa eskatu zuen guztientzat ez baita lotura frogatu, Fiskaltzak berriz 2 eta 4 urte arteko kartzela zigorrak eta taberna edo elkarteen bahitzeak eskatu zituen.

Aipatu behar da, hainbat eragile eta alderdi politikoez akusatuen erugabetza onartzea eskatu diotela Auzitegi Nazionalari. Orain epaiaren zain diru akusatuek.

AZPIEGITURAK

Bidegorria hurrengo urterako

Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak asteazkenean Lasarte-Oria Donostiarekin batuko duen bidegorriaren aurkezpen publikoa egingo zuten Manuel Lekuona kultur-etxean.

Bilera honetan Unai Erroitzenea Mugikortasun eta garrio publikoko zuzendari nagusia eta Aldundiko Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturako departamentuko German Pozas eta Edorta Bergua teknikariak izan ziren, baita herriko mugikortasun zinegotzia Nerea Sanchez ere.

Aldundiak lotura hau gauzatzeko egiten duen proposamena azaldu zien hitzaldi aretora hurbildu ziren herritarrei.

Urte amaieran erailtzen hasiko diren proiektuaren arabera, GI-20 errepideko zati bat hartuko du eta Errekaldeko errotandian hasiko da bidegorria. Lasarte-Oriarantz eginaz metro batzuetako zati laua izango luke eta beharago malda txiki baten ostean, trenbide zaharreko bidean sartuko litzateke. Ibilbide honetan dagoen tunela amaিতatukoan UBUI merkatalgunez egingo luke bidegorriak.

Honetan oinezko eta bizikletentzako bidea aurrekisia dagoela jakitera eman zuten eta Donostiak eremu horretako urbanizatze proiektuan duen bidegorriarekin bat egingo lukeela ere aipatu zuten.

Azalpenaren ostean, herritarrek haien proposamenak, kezkek eta galderak egiteko aukera izan zuten.

ERAKUSKETA

Pilar Soberon Kutxa Boulevard-en

Pilar Soberon artista lasarteoriatarren erakusketak berria Dissolutio Kutxa Boulevard aretoan ikusgai dago.

Dissolutio erakusketan argazkiak, instalazioak, bideo-sorkuntzak, marrazkiak eta soinuk nahasten dira. Gizabanakoaren erreakzioak pizteko sortu dira, baita erakusketak-eremuaren mugetan barrena esploratzeko ere.

Erakusketaz guztietako asteartetik igandera, 17:00etatik 21:00etara hurbildu daitezke aretora. Apirilaren 27ra arte ikusgai izango dira herriko artistaren lanak.

UDA

Kanpaldi eta udaleku itxien izena ematea

Udan primeran igarotzeko aukera dute aurten ere Ttakun kultur elkartek antolatzen dituen Kanpaldi eta udaleku itxietan.

DBH1-DBH4 urte arteko gazteek kanpaldi ibilbideari egingo dituzte. DBH1 eta DBH2 mailako gazteek Bizkaiko kostaldean ezagutuko dute, udailaren 3tik 14ra; zaharrenek berriz, udailaren 15etik 26ra Nafarroako hegoaldean mugilduko dira.

LH3-6 mailako gazteetok Araban izango dituzte udaleku itxiak. LH3 eta LH4 mailakoak Gobiaren ezagutuko dute udailaren 16tik 25era; LH5 eta 6koak aldez udailaren 2tik 13ra Mendigorrian izango dira.

Gazte Kluba eta Kuadrillategiko kideek, Ttakuneko bazkideek eta iaz kanpaldi eta udaleku itxietan egon zirenek martxoaren 18 eta 31era bitartean lehentasuna dute izena ematean. Gainontzekoek apirilaren 1etik aurrera egin ahaliko dute inskripzioa.

Izena ematea Ttakun kultur elkarteko bulegoan egingo da soilik. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak bulegora hurbildu eta 943 371 448 telefonora deitu behar du.

EUSKARA

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik sarria

Gidabaimena euskaraz ekimeneko sariak banatu ziren asteartean Udaltzeko udal batzar aretoan. 2013. urtean euskaraz aterketak gaitunditu zutenen artean, sariak Miren Cuervo, Nerea Sanchez eta Itziar Mugika izan ziren. Hauak 400 euroko sarria jasoz zuten Berts Naguales zinegotziaren eskutik, Miren Cuervo herritarren kasuan, aitzak jasoz du bere orde.

Euskaraz batordeko bunak sariak zoriandu eta bide batez, aurten 18 urte bete eta gidabaimena ateratzeko asmoa duten herritarrek euskaraz egin dezaten animatu zituen. Datoren urtean ere izango delako halako saria jasotzeko aukera.

Orereta abesbatza Musika Topaketetan

Danak Kide elkartek antolatzen duen Musika Topaketa jardunaldiek hizordu berria dute ostriralean, 19:30ean. Ama Brigitarren komentuan orangoan haur eta gazte abesbatzaz gozatzeko aukera izango da Orereta Abesbatzaren eskutik.

Imanol Elizarsen zuzendaritzapean abesbatzak kantu erlijiosoak eta polifonikoak eskainiko ditu bere emaldian, hala nola, Felix Mendelsson-en "Laudate pueri!", Jean Philippe Rameau-ren "La nuit" zuzendariak moldatua edo Josu Elberdin "Alami" eta Jankal Guerrero-ren "Bi bihotz" kantuak.



Orereta Abesbatza Errenterriko Andra Mari abesbatzaren harrobia da. Jose Luis Ansoñe 1968. urtean sortua. Izan handiko abesbatza da haur eta gazte mailan eta Estatu mailan, zein nazioartean hainbat jaialdi eta txapelketetan parte hartu du. Shangaieko Expoan izan zen eta eta 2010ean Txinako

Shaoxing hirian ospatu ziren Olinpiada Koraletan zilarrezko hiru domina lortu zituen.

Aurten Landetako Unicef erakundearen 50. Urteurrenko ekitaldi nagusia gonbidatua izan da eta 2015. urtean Castelnau-daryko (Frantzia) haur abesbatzen jaialdian ere izango da.



Lehenengo hitza da giltza

Leane-Oskio Udako euskara-erabilera kanpaina zela ikusirik, Leane-Oskio udalaren zuzendariek erabaki zuten kanpaina zuzentzeko. "Euskara Bidegorria" izen berriarekin jarraituko da. Leane-Oskio udalaren zuzendariek erabaki zuten kanpaina zuzentzeko. "Euskara Bidegorria" izen berriarekin jarraituko da.

"Udala eta herritarrek batuta dituen bidean topa egitea gaur da hainbat da, bestek beste, bizkarreko aukera ematen duteko, kultur ikastaroz, udal tasez, kiria ikastaroz, autoa arazo baino bati buruz... Hori-eman horretan erabiltzeko erabakia da. Udalak, herritarrengana iritsi nahian, hain Bidegorria" kanpaina zabaldu nahi du.

Hiru herrietan lehenengo hitza da giltza eta zure izango da euskarazko hurrengo hitza eta eremuaren zati batzuk hartzen ditu.

Bidegorria, kanpaina zuzentzeko erabakia da. Leane-Oskio udalaren zuzendariek erabaki zuten kanpaina zuzentzeko. "Euskara Bidegorria" izen berriarekin jarraituko da.



Zer da euskararen bidegorria?

Euskararen bidegorria da, diskriminazio positiboa aplikatuz, udal zereginetan lehenetsitako hizkuntza euskaraz izatea eta beharrezko den egokieraz gaitzeko erabakia. Bidegorria zentzu figuratiboa erabiltzen da. Eta bidegorriaren irudierkin alferatzen nahi da, euskararen bidegorria gaitzeko erabakia da.

Leane-Oskio Udako euskara-erabilera kanpaina zela ikusirik, Leane-Oskio udalaren zuzendariek erabaki zuten kanpaina zuzentzeko. "Euskara Bidegorria" izen berriarekin jarraituko da. Leane-Oskio udalaren zuzendariek erabaki zuten kanpaina zuzentzeko. "Euskara Bidegorria" izen berriarekin jarraituko da.

Leane-Oskio Udako euskara-erabilera kanpaina zela ikusirik, Leane-Oskio udalaren zuzendariek erabaki zuten kanpaina zuzentzeko. "Euskara Bidegorria" izen berriarekin jarraituko da. Leane-Oskio udalaren zuzendariek erabaki zuten kanpaina zuzentzeko. "Euskara Bidegorria" izen berriarekin jarraituko da.

Euskararen bidegorria da, diskriminazio positiboa aplikatuz, udal zereginetan lehenetsitako hizkuntza euskaraz izatea eta beharrezko den egokieraz gaitzeko erabakia. Bidegorria zentzu figuratiboa erabiltzen da. Eta bidegorriaren irudierkin alferatzen nahi da, euskararen bidegorria gaitzeko erabakia da.



Udal langileak aukera ematen dizu hitza hartu eta lehen hitza euskaraz egiteko. Lehen hitza langileak hartzen badu, euskaraz egongo dizu, hala nahi baduzu, haren bideak jarraitu dezazun.



Leane-Oskio Udako euskara-erabilera kanpaina zela ikusirik, Leane-Oskio udalaren zuzendariek erabaki zuten kanpaina zuzentzeko. "Euskara Bidegorria" izen berriarekin jarraituko da. Leane-Oskio udalaren zuzendariek erabaki zuten kanpaina zuzentzeko. "Euskara Bidegorria" izen berriarekin jarraituko da.



Konfidezgarri eta kulturako ikastarok euskaraz, nagusi euskaraz, bi hizkuntzetan erabiltzeko erabakia ematen du.

Lehenengo hitza da giltza

Euskararen bidegorria hobeto ezagutu nahi baduzu, egin klik hemen eta ikusi bideoa: www.lasarte-onia.org



TXIRRINDULARITZA

Buruntzazpiko txirrindulariak etxean sendo

Usurbilgo kaxkoan egin zuten lasterketa alebin eta infantil mailako ziklistek larunbat arratsaldean

Irteera puntua Usurbilgo kaxkoan zuten, handik aldapa beheara Aliproxeko biribilgunera jaitsi eta pinoietako hortzak igo behar izan zituzten Kalexargo aldapa pikoa igotzeko. Azkenik industrialdetik barrena jaitsiera bihurri eta azkarrarekin helmugaraino iristen ziren. Guztira ia kilometro eta erdiko zirkuitua zen. Alebinek hiru itzuluri eman behar izan zituzten barrutiari denera lau kilometro eta erdi egiteko. Infantilek berriz zortzi itzuluri 12 kilometroko ibilbidea osatzen.

TXINTXARRI

Arratsalde pasa polita egiteko aukera izan zuten Usurbilen bildu ziren Buruntzazpiko txirrindulari eta hauek lagun eta senideek.

Poligonoetako bihurgune hotzak utzi eta herriko kaleen berotasunean barrena beren mailot eta kulote koloretsuak erakutsi zituzten asteburuan kirolari gaztekoek.

Denera 31 ziklista aritu ziren nor baino nor infantil mailan eta 40 berriz alebinetan.

Horiematik dozena bat inguru izan ziren Buruntzazpikoak eta herriko txirrindularitza osasun onean dagoela berretsi zuten berriro ere.

Usurbileko emaitzak

Alebin mailan berri onak. Podiumeko koskarik gorenera Asier Pozo Buruntzazpiko ziklista igo baitzen. Bigarren postuan Viveros San Antoneko Oier Unanek egin zuen eta hirugarren talde bereko Mikel Azkue izan zen.

Nesken mailan berriz, Nagore Lizarraga izan zen azkarrena Maddi Arizmendi eta Irati Arteagaren aurretik.

Infantiletan ez zen Buruntzazpiko inor podiumera igo, baina postu onak egin zituzten. Nesken mailan Ekhine Rivas Allerruko txirrindulariak irabazi zuen, Haizea Tizon (Irunes) eta Nahia Osaren (Viveros San Anton) aurretik.

Mutiletan berriz, Haritz Erasun eta Adrian Sorreluz



Usurbilgo kaxkoan eta Kalexarren barrena ibili ziren Buruntzazpiko txirrindulariak, jende asko bide bazterretan.

Zarautzarrako txirrindulariek lehen unetik ihes egin eta elkarri erreleboak emanez pelotoiarekiko geroz eta alde handiagoa hartu zuten.

Azkenarekiko itzulian Erakusne alde egin eta bakarbakarik iritsi zen helmugara, lehen postuan.

Hirugarren postuan Befat Felipe Allerruko ziklista sailkatu zuen.

Buruntzazpiko txirrindulariek lehen hamarren artean sailkatuta postu aipagarriak egin zituzten Asier Pozosen garaipenaz gain.



Alebin mailan Bazpiko Asier Pozo nagusitu zen.

TENISA

Lasarte-Oriako ATG txapelketa martxan

Gipuzkoako Tennis zaleek antolatuta, tenis txapelketa zirkuitu bat osatu da lurraldean, ATG zirkuitua izena eman zaiona.

Hainbat txapelketa daude honen baitan eta horietako bi Lasarte-Orian jokatuko dira.

Bata asteburu honetan hasi da ATG Lasarte-Oria txapelketa, bestea LOKEk antolatutako Lasartenis txapelketa uztailaren 1ean hasiko da, urtero bezala udara partean izango da azken hau.

Herritarren txapelketan

ATG Lasarte-Oria txapelketa 52 bat jokalarik parte hartuko du. Kanporaketa sistema jarraituko du eta maiatzeko 10. eguneko amaizera aurreikusten da.

Gipuzkoako osoko jokalarik parte hartuko du eta lasar-

teoriarrak ere izango dira lehian, Alex Zubizarreta, Ander Huegun edo Fermin Tena esaterako.

Aipatu legez, asteburu honetan hasi da ATG Lasarte-Oria lehiaketa eta kirol guneko tenis pistetan partidak ikusteko aukera izan da.

Bai Alex Zubizarretak, baita Ander Huegunek ere partida jokatuko zuten asteburu honetan.

ATG-ATSS

Bestalde, martxoaren 8an, ATSS-ko txapelketa finalerdia jokatuko zen Bera-Beran, Donostian.

Honetan Ander Huegun herritarrak Joserra Ceballos izan zuen aurrez aurre. Ceballosek 6-4, 6-1 garaitu zuen herritarra.

Bestalde, beste txapelketa batzuk ere martxan



Ander Huegun pilota astintzen.

daude eta hauetan lasarteoriarrak ari dira lehiatzen, Mons Liga sozialean edo Paakea-ko lehiaketan esate baterako.

LABURRAK

Itoitz Rodriguez Espainiako txapeldun

LOKEko sei atleta Espainiako jubenil txapelketan izan dira Valentzian. Azpimarragarriena Itoitz Rodriguezen lana izan zen. 400 m. lasterketan Espainiako txapeldun izan zen marka ederra eginez.

Finalerdian fin zegoela erakutsi zuen usurbildarrak, bere lasterketan lehenengo postua egina lortu zuen finalerako txartela. Finaleran arieriegi aurre hartu zien lasterketako lehen metroetatik. Helmugan, Euskadiko errokorra hausti zuen 48 sg. 99 ehuneko marka eginez.

Oskar Goikotexea entrenatzaileak aipatu digunez, lan paregabea egin zuen Itoitz txapelketan. Hala ere, urduritasuna nabaria zen "lehiaketa batzuetan zorte txarra izan dugu eta tensio txiki bat nabari zen".

Itoitzek egindako marka oso garrantzitsua dela ere azpimarratu zuen, "maila honetan, Espainiako historian inoiz den 5. markarik onena da". Eta orain Bakun izango den Gazteen olimpiadetakoa sailkapenean lehiatzeko gutxieneko marka lortzen saiatuko dela onartu du, "99 ehuneko bakarrik dira eta maiatzak 18ra arte du marka jaisteko".

Squash txapelketan izena ematea

Lasarte-Oriako Kirolean Udak Zerbitzuko hogeita seigarren Squash txapelketa soziala antolatuko da.

Txapelketa 2014ko martxoaren 31n hasiko da eta ekaina arte jokatuko da. Parte hartzeko gutxieneko adina 14 urte da.

Parte hartzeko asmoa dutenek martxoaren 21a arteko epea dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko. Inskripzioaren prezioa Buruntzaldeko bazkideentzat 10 eurotako da.

— Agenda —

Asteartea 18, 18:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



Emakumea eta literatura

Hilabete honetako irakurle-txokoan Virginia Wolf-en "Gela bat norberarena" liburua aztertuko da Uxue Alberdi dinamizatzailearen laguntza. Emakumea eta literatura gai hartuta garai hartan emandako bi hitzaldi bitzen dituen entsegu da idazle ingelesaren lan hau.

Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 21, 19:30ean

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketan barruan Oreta abesbatzaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

ZULO ARETOA

Ostirala 21, 22:30ean

Insolenzia taldearen rock doinuaz gozatzeko kontzertua.

Ostirala 21, 23:55ean

Unai Bellany Dj-en musika elektronikoa saioa izango da.

Larunbata 22, 22:30ean

Flamenkoa gustuko dutenek, La Hungara-ren kontzertuaz gozatu ahaliko dute. Sarrera, aurretik 15 euro gehi kudeaketa; leihatilan, 18 euro.

Larunbata 22, 23:55etan

Sumeria-en ekutik musika elektronikoa emanaldia izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 23, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "El caballero don Laton" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gastelaniaz.



Igandea 23, 19:30ean

Helduentzako zinea, "La ladrona de libros" filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gastelaniaz.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 21, 21:30ean

Emaitza taldeak "Esperando a la iglesia" antzezlan eskainiko du. Lasarte-Oriako antzerki amateur eskaintzeko ekimena. Emakumeen Zentroko antzerki taldeak proposatua. Sarrera aurrealmentan 3 euro; egunean bertan, 5 euro.

MANUEL LEKUONA

KULTUR-ETXEA

Ostirala 21,

21:30ean

Gorakada teatroak

"Aladino" haur antzerkia eskainiko du. Sarrerak internet bidez, 2,70 euro; leihatilan, 3 euro. Euskaraz



Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 27, 18:00etan

3-5 urte bitarteko haurrentzat ipuin irakurketa izango da.

Andoain

Dantza

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 21, 14:30etan

Dantza konpainiak Kamaleoiak lana arukezuko du. Sarrera, 10 euro.

Usurbil

Hitzaldia

ZUBIETAKO KAXKAPÉ EGOITZA

Osteguna 20, 14:30etan

Maidier Mendizabal psikologoak 2-8 urte bitarteko umeen autoestima hitzaldia eskainiko du.

— Herritarren txokoa —

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekinaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitetz lekuri gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Megaba elkarte kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzea.

Horretarako www.megaba.es weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Oriaren martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratzak, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barakzi eta fruitak, garaiari garaioak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalki dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidetan.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak asteartetan dituzte saioak eta Erketz EDT-ko kideak, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urteko aurrerako haur eta gaztekoek ere Erketz Txikian dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefonora zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Eskutitza

Hezkuntzan ere, ezezkotik eraikuntzara

Ez da nolanhakoa LOMCE legea ezartzeak Hego Euskal Herriko gizarte osoari eragingo ligukeen kaltea.

Euskaraz, genero berdintasuna, gure kurrikulum propioaren eraketa... Zabalitzen ari dira erreforma honek alor ezberdinetan eragingo litzukeen ondorio kaltegarriak.

Beste ondorio bat ere atera daitezke, ordea, erreforma honen ezarpenetik. Hego Euskal Herriko gehiago handi bat aurka egonik ere, ez dago inposizio honi erantzuteko biderik espainiar legalitatean. Beste behin ere argi geratzen da Herri bezala aritzeko eskuak loturik dauzkagula garu egungo markoan.

Horregatik, epe motzaren lege honi ezetz esateko erantzun zabal eta plural bat artikulatu behar bada ere, jar gaitzen epe ertainera begira eta has gaitzen inposizio hauei gure alternatiba eraketa eta bidea eginez. Estatuaren inposizioei aurre egin eta gure hezkuntza-eredua garatzea ahalbidetuko diguten tresnak eskuratzera joan behar dugu; alegia, hezkuntza sistema

propioa egituratzen joan behar dugu, ezezkotik eraikuntzarako trantsizioa eginez.

Hezkuntza-eredu propioaren bidean lan asko egin da urteetan zehar, eta esan dezakegu lan horren ondorioz adostasun zabalak lortu direla hezkuntza komunitatean. Hori oinarri hartuta, eragile eta herritarrekin batera, adostasun horiek tresna pedagogiko eta normatibo bihurtzeko dinamika soziala, politikoa eta instituzionala martxan jarri behar dugu.

Ametzen dugun Herria eraikitzeari ekin diezaiogun, hezkuntza ere gartu dezagun Euskal Bidea, gure ibilbide propioa. Lan handia dugu aurretik; Espainiak trabak jarriko ditu bide honetan, baina abiadura hartzen badugu ezingo gaitu zangotrabatu. Lan gogorra dugu aurretik, lan polita dugu aurretik, jaitzi dezagun gaia plazara eta has gaitzen lanean.

Lasarte-Oriako EHBildu.

Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 934 366858 tintxarri@tintxarri.info

Zuhaitzaren egun paregabea Lasarte-Orian

Haritzak, pagoak, luzarrak eta gorostiak landatu zituzten Goiegiko mendi magalean

Zuhaitzen Egunaren XXIII. edizioa ospatu zen Lasarte-Orian ostegun eta ostiralean. Heldu zein gaztetxoek 150 zuhaixka landatu zituzten Goiegiko mendi-hegalean. Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak batera antolatzen duten ekimen honen helburua belaunaldi berriei zuhaitzen garrantzia erakustea da.

TXINTXARRI

Aitzurra eskuan, zuhaixka bestean, aitzurrarekin lurrean zuloa egin. Kimuaren erroak eta enbor pixka bat kanpoan geratzen denean sustratoa bota eta ongi estali" adi-adi jarraitu zituzten bai heldu, bai gaztetxoek Eneko Urdanpilleta udal lorezainaren azalpenak.

Ostegun eta ostiralean, eguraldia lagun, Zuhaitzaren eguna ospatu zen gure herrian eta Goiegiko mendi magalean.

Ingurumeneko Departamentuak zuhaitzen garrantzia kontzientziatu nahi ditu herritarrek, eta, martxoaren 21ean ospatzen den Basotzaren Munduko Egunerakin bat eginez, belaunaldi berriak ere hezi nahi ditu gure basoak zaindu beharaz.

Horregatik Zuhaitzaren egunen ikastetxetako 160

bat haur izan ziren Goiegiko mendi-hegalean.

Urdanpilletak azaldu zue-nez, aurten haritz, lizar, pago eta gorostiak landatu dira, luzitira 150 kimu eta hauen %60a edo gehiago aurrera ateratzea espero da.

Gainera, landatzen diren zuhaitz motak Foru Aldundiak zehaztutakoak direla ere adierazi zigun.

Landatu eta argazkiak ateratu

Helduak izan ziren XXIII. zuhaitz egun honetan eskuak zikitzen lehenak.

Udalaren Euskaltegiko, AEK Euskaltegiko, Sexuen arteko Bizikidetzarako Emakumearen Zentroko, Erretiratu Elkarteak eta Heldu-tzuen Elkarteak eta Heldu-tzuen Elkarteak irauten zirenekin batera, 63 pertsona bildu ziren osteguneko Goiegiko mendi magalean. Bertan izan ziren Pablo Barrio alkatea eta Nerea Sanchez ingurumen sailko burua ere.



Helduek ere zuhaitzaren egunean parte hartzeko aukera izan zuten. 50 bat kimu landatu zituzten Goiegiko mendi magalean.

50 bat zuhaixka landatu zituzten umore onean. Batzuk aitzurra eskuan lanean, besteak mugikorrari esker, lagun eta ezagunen zuhaitz landatze lanak argazki edo bideoan grabatzen.

Haurrak ikasten

Ostiralean, berriz, Landaberri eta Sasota-Zumaburuko ikasleak izan ziren.

Alkate, irakasle eta lorezainen laguntzaz, zizare, lur eta hariak zuloetan hartu eta 100 zuhaixka landatu zituzten.

Goiz ederra igaro zuten Goiegiko mendi magalean.



Haurrek ederki egin zuten haien lan aitzurra eta irakasle eta lorezainen laguntzaz.

Lasarte-Oriara ere iritsi da Eskolarteko Txapelketa

Ostiralean ospatu ziren bertso-saio didaktikoa eta idatzizko eta bat-bateko sariketak. Lasarte-Oriako Arrieskalleta elkartearen jokatu zen bat-bateko saioan Iraitz Mateo izan zen garaile eta beraz zuzenean sailkatu da finalerako, gainontzekoek hurrengo saioen zain egon beharko dute.

Esan bezala, ostiralean jokatu zen Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren bigarren kanporaketa. Lasarte-Orian izan zen eta inguruetako bertsolari eta bertsozale ugari bildu zituen. Idatzizko sariketa, saio didaktikoa eta bat-bateko txapelketa jokatu ziren. 14 urteik 18 urte bitarteko gazteen artean, Iraitz Mateo oiarztuarak jaso zuen finaleratu zuzenean sailkatzeko txartela.

Formatu aldaketak

Gipuzkoako Eskolarteko txapelketaren 34. edizioa da honakoa, baina txapelketa eraberrituta dator aurtur.



Arrieskallean egindako afari-merienda ostean bat-bateko bertso-saioan aritu ziren gazte gipuzkoarren talde-argazkia.

Gogoeta luze baten ondoren, zenbait aldaketa egitea erabaki zen.

Eskolarteko txapelketak bi zati nagusi ditu, idatzizko eta bat-batekoa. Aurtun, 200 ikasletik gora parte hartu dute lehen kanporaketan.

Ostiralean Manuel Lekuona

Kultur Etxean izan zuten ikasleek ordubeteko tartea (15:00tan hasita) ahalik eta bertsorik onenak idatzeko.

Ondoren, saio didaktikoa izan zen leku berean. Aurreko edizioetan 14 urteko gaztetxoek taldeka parte hartzen zuten txapelketa formatuan,

baina adin tarte honetan lehia ezabatzea erabaki da hilabeteetako gogoeten ondorioz.

Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi izan ziren bertsoetan eta parte hartzaile gaztetxoak ere animatu ziren zenbait bertso kantatzera: Beasain eta Oiartzungo bina

talde. Amaia Agirre villabonarra izan zen saioaren aurkezle lanetan.

Bat-bateko saioa

Aurtengo beste nobedadea bat-bateko txapelketaren formatua izan da. Lehen idatzizko sariketaren segidan egiten zen txapelketa jaialdi formatuan. Aurtengo edizioan, ordea, afari-merienda bat egin ostean jardun zuten bertsolariak lehiari, mahai-inguruan.

Maddi Etxeberria (Larraul), Jokin Irastorza (Oiartzun), Iraitz Mateo (Oiartzun), Iraitz Sarasola (Ordizia), Gartxot Ramirez (Zaldibia), Ander Garayar (Zarautz) eta Ixak Sarasua (Aretxabaleta) izan ziren parte hartzaileak. Iban Sukia, Martin Aramendi eta Aitzol Astigarraga izan ziren epaileak.

Amaia Agirre villabonarra izan zen bat-bateko saioaren aurkezle lanetan. 60 lagun inguru izan ziren saioa jarraitzen Arrieskalleta elkartearen.